


# Karramarro arrunta

Austropotamobius pallipes

Ibaiko karramarro arrunta 10-12 zm.-ko krustazeo bat da. Oskola gogorra da, kolore marroi berdexka, nahiz grix-urdinxka hartu dezake. Hagin handiak ditu eta antenak ertainak.

Ur gezako espeziea da; ur korronte iraunkorretan murgildutako harri, enbor, hosto erori edo sustraien artean eroso aurkitzen dena; ibaietan, erreketan eta baita laku edo urtegiatan ere. Hondakin jalea da, orojalea. Harrapari asko ditu; igaraba, amuarraina, hegaztiak...



Populazioen  
beherakada 70.  
hamarkada eta 2002.  
urteen artean  
Mapak: lifepotamofauna

Iberiar Penintsulako ibaietan oso hedatua egon arren, populazioa asko jaitsi egin da. Nafarroan **Galtzeko Arriskuan** katalogatua dago.



Karramarro arruntaren **mehatxu nagusia** XX. Mendearen erdialdean ekarri ziren karramarro espezie kanpotarren konpetentzia da: karramarro gorria eta seinaledun karramarroa.

Horrez gain, hauekin gure karramarroarentzat mortala del **gaixotasuna** ekarri zuten.

## Hiru karramarro motak bereiztuko al zenituzke? Zein da zein?

### Karramarro gorria

- Normalean gorri edo gorrixka da
- Haginak arantzadunak edo pinportadunak dira.
- Bizkarraldeko suturak elkartzen dira

### Seinaledun karramarroa

- Haginen artean markatxo argi bat dauka.
- Bizkarraldeko sutura ez dira elkartzen.
- Arantzarik edo pinportarik ez du.



Haginak



Pinportak edo arantzak



Bizkarraldeko suturak